

## 2.8 Ondarea (G08)

Aurrerakinak oso proposamen zehatza egiten du, bere biziz hautabiderik ez duena. Nola bere antolaketa eta zehaztapen grafikoa oso argia den P.A. planoa aztertzea gomendatzen da.

Eusko Jaurlaritzak jada aitortu edo inbentariatutako elementuak zehazten ditu:

- Monumentuak:
  - Ondasun kulturala monumentu kalifikazioarekin: *Puente Vizcaya*
  - Ondasun kultural inbentariatua monumentu bezala: *Amorotoena etxea 213 zk., Andra Mari eliza 230 zk., Harino Panadera lantegia 295 zk.*
- Monumentu multzoak:
  - Monumentu multzo bezala sailkatzea hasitako ondasun kulturala: *Elorrietako udal saneamendu punpa estazioa + 6 Malakates 262 zk.*
  - Monumentu multzo bezala kalifikatutako ondasun kulturala: *Getxolako gunee berezia.*

Aurreko zerrendari honakoak gehitzen dizkio:

- 49 elementu Eusko Jaurlaritzak "aitortzeko proposatuak".
- 153 elementu Eusko Jaurlaritzak "tokiko babesa" izateko proposatuak.
- 21 elementu Eusko Jaurlaritzaren "garrantzi gabeko beste ondasun batzuk" kategoriarekin.
- 56 eraikin udalak babesteko eta beste 61 elementu berri orain kontutan hartzeko proposatzen direnak.

Aurrerakinak ez ditu hartzen zenbait eraikin Eusko Jaurlaritzak proposatutakoak, hori era banakatuan justifikatuz. Alde batera uzten du, izan ere gainjarritako zehaztapen bat delako, arkeologia ondarea.

**Kontutan hartu beharreko barietateak hautabideetan eta jendaurreko erakustaldian:**

Aurrerakinak 317/2002 Dekretuan zehaztutako ondarean egiteko eraikuntza esku-hartzeak zabaltzea proposatzen du, era horretan babestu beharreko eraikinetara egokitzeko. Proposatzen du ere Plan Berezi bat edo gehiago mugatzea elementu bakoitzaren babespen maila zehazteko. Gainera, uste du babespenak gunee libre (pribatu zein publikoak), lur-zati itxierak edota landaredi elementuak ere kontutan hartu behar dituela zenbait gunee eta eraikinetan.

Edonola ere, L1 hautabideak azpimarratze du kultura paisaia errekuperatu behar dela eta ondare historikoaren birgaitzea bultzatu (baserriak, harraskak eta iturriak, errotak, etab.).

L3 hautabideak proposatzen du ondare historikoa jarduera ekonomikoko eragile bezala sustatzea (adibide gisa aipatzen du Portu Zaharra edo Andra Mari eliza).

Berezitasun bezala, Aurrerakinak zenbait "Hiri-birgaitze eta eraberritze gunee" zehazten ditu. Hain zuzen, jendaurreko erakustaldi honetan ondoko hauei buruz egin beharko litzateke hausnarketa bat:

- Ajedrez Plaza (araudian sartu beharreko oinarrizko irizpideei buruz eztabaida bat egitea proposatzen da).
- Portu Zaharreko zelaigunea: L1, L2, L3, T1, T3 eta T3' hautabideetan gunee libre bezala planteatzen da. T2 eta T2' hautabideek ekipamendu bezala planteatzen dute, nahiz eta beste planteamendu batzuk ere egon daitezke (dauden aparkalekuei buruz hausnartu behar da, ea zelaigunea aldaparekin batera integratu behar den gunee libre bezala, baserriaren papera, etab.).
- Alangobarri: etxeetara heltzeko zailtasunak ekintzaren bat egitea eskatzen du.

#### Indarrean dagoen HAPO (2001)

Eraikinen, esparruen eta elementuen babeserako araubide bat ezartzen du, bereziz monumentuak, Getxoko gunee bereziko monumentu multzoa (Portu Zaharra, etab.), bost malakateen monumentu multzoa, arkeologi presuntzioko gunee, udal babeseko eraikinak eta zuhaitzak eta lorategiak. Bakoitzari kategoria eta maila bat maten dizkio, eta horren inguruan banakatzen da babespen maila.

- *Babestutako 12 eraikin deskatalogatzen dira, eraitsi ondoren ordezkatuak izan direlako.*
- *5 eraiki berri katalogatzen dira beraien babeserako.*
- *10 eraikin berri babeserako "ez historiko" bezala hartzen dira, babesteko, nahiz eta sustapen, babespen edo kontserbazio neurririk gabe.*